

129. FITXA 2025ean nazioarteko lehiaketak egiteko kirol-azpiegituretan obrak egiten dituzten toki-korporazio eta udal-enpresa publikoentzako laguntzak

Nori zuzendua: toki-korporazioak eta udal-enpresa publikoak.

Sarbide-esteka: [Kirol Kontseilu Gorenaren Egoitza Elektronikoa: orri nagusia](#)

Erreferentziazko araudia: [Kirol Kontseilu Goreneko Lehendakaritzaren 2025eko maiatzaren 5eko Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, 2025. urtean, nazioarteko lehiaketak egiteko kirol-azpiegituretan obrak egiten dituzten toki-korporazioentzako eta udal-enpresa publikoentzako laguntzen deialdia egiten da](#)

Eremuak: Kirola

Zenbatekoa: 555.160 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/05/22

Laburpena

Dirulaguntza 2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko azaroaren 30era bitartean **kirol-azpiegituretan obrak** egingo dituzten edo egin dituzten toki-korporazioei eta udal-enpresa publikoei zuzenduta dago, obra horien ondoren, 2025ean edo hurrengo urteetan **nazioarteko lehiaketak** egin ahal izateko.

Deialdi honen ondorioetarako, **nazioarteko lehiaketatzat** hartuko dira Espainiako kirol-federazioen eta dagozkien nazioarteko kirol-federazioen egutegi ofizialak osatzen dituztenak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Laguntzak eskatzen dituzten erakundeek eskabide bakarra aurkeztu beharko dute. Eskabide bakoitzak finantzaketa eskatzen den proiektu bat edo batzuk jaso ahal izango ditu, eta jarraian adierazten diren gastu-kategorietako bat edo batzuk bildu ahal izango ditu:

Inbertsio-gastuak:

1. Kirol-espazioak eta -instalazioak egokitzea eta hobetzea.
2. Kirol-jarduerari laguntzeko aldagelak eta beste espazio osagarri batzuk egokitzea, hala nola gimnasioak, berregokitze- eta erizaintza-aretoak, eta prestakuntzarako egoitzak eta aretoak.

3. Trantsizio ekologiko, digitalizazio, berdintasun eta inklusio, irisgarritasun eta/edo instalazioen segurtasun helburuak betetzearen hobekuntzak dituzten instalazioak moldatzea, egokitzea eta hobetzea.

Gastuetarako aldi hautagarria

2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko azaroaren 30era bitarteko kirol-azpiegituretako obrak eta 2025ean edo hurrengoetan nazioarteko lehiaketak egitearekin zerikusia dutenak.